

2010

Proiektua	GKE	Non garatu	Dirulaguntza €
Neskatilen eta emakumeen aurkako indarkeria eragotzi, tradiziozko praktika kaltegarriak eta osasunean horiek dituzten eraginak gutxituz.	HAURRALDE	Liberia	72.606,93
Helburua: Liberialan neskatilen ezkontza behartuak eta mutilazio genitala sarri ematen dira. Proiektuaren helburua da, besteak beste, praktika horiek gutxitzeko neurriak hartzea eta emakumeen eskubideekiko sentsibilizazioa lantzea.			
Uraren eta saneamendua integralaren udal-kudeaketa eta partaidetzakoa indartu Sololan eta San Andres Semetabajen.	LAGUN ARTEAN-ENTRE AMIGOS	Guatemala	73.430,16
Helburua: uraren eta saneamenduaren kudeaketan herritarren parte hartzea bultzatu, uraren erabilerak osasunean duen eraginaz jabe daitezen.			
Emakumea, HIESa eta abandonua. Gudaren ondorioak jasan dituztenak artatzeko zentroa Mbujimayin	FUNDACION DIPER	Kongoko Errepublika Demokratikoa	85.000
Helburua: Osasun-zentro bat egin gudaren eta sexu indarkeriaren biktimak artatzeko, eta gerraren ondorioz kalean geratu diren neska-mutilentzako aterpetxea mantendu.			
Genero indarkeriaren aurkako emakumeen sarea. IV fasea	SOLIDARIDAD INTERNACIONAL	Guatemala	69.500
Helburua: Genero indarkeriarekiko sentsibilizazioa landu komunitateetan bertako sustatzaileen bitartez, eta arazo horri aurre egiteko prestakuntza eskaini hezkuntza- eta osasun-arloan lan egiten duten profesionalei.			